## Antzuola

# Baserriko tresna zaharrak ikusgai

## 'Zaharkinak' proiektuak kalera atera zituen antzina erabili ohi ziren lanabesak

AINTZINAKO tresnak baserrietan pilatu eta ia ahaztu egiten direla-eta, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Udalarekin lankidetzan eta Aranzadi elkartearen laguntzarekin, *zaharkinak* proiektua jarri zuen martxan iragan apirilean. Asmoa herriko baserrietako ondarea antzuolarren artean ezagutzera ematea zen.


EGUNKARIA

■■■ Erakusketa atontzeko bilaketa lan handia egin da.

Hamaika neskako taldea eratu eta, baserriz baserri ibili ondoren, gorderik zeuden tresnen gaineko datuak eta informazioa batu zuten. Baserriarekin zerikusia duen guztia izan zuten aztergai: lanerako tresnak, altzariak, erlijio kutsuko gauza guztiak eta argazki zaharrak. Behin dena ikusi eta sailkatuta, Aranzadi Zientzia Elkarteko etnografia taldekoek ekin zioten tramankulu guztiak batu eta pilatzeari.

*Zaharkinak* proiektuko kideek baserri gehienetara egin zuten bisita; orotara, 50 baserri inguru. Lortutako emaitza: mila eta berrehun piezatik gora. Aranzadi elkarteko ordezkariek adierazi digutenez, «tresna asko eta asko forma edota erabileragatik berdin xamarrak ziren eta, beraz, aukeraketa egin behar izan genuen hobekien kontserbatutako piezak aukeratuz».

### Artxibo historikoa

Lortutako gauza guztiekin herriko artxibo historikoan geratuko diren fitxak egitea izan zen ondorengo pausua. Proiektuan buru-belarri aritu zirenen esanetan, «historikoki eta kulturalki izugarrizko balioa duten hainbat tresna eta argazki batzea lortu genuen.Ondo sailkatu eta artxibatuta egotea nahitaezkoa da hurrengo belaunaldiek baserriaren historiaz gehiago jakin dezaten».

### laburrean

**• Lanak herriko plazan**

Olarango jauregiaren berreskurapen eta berrikuntza lanak habian dira, Arrasateko Lanbide Eskolako kideen eskutik. Bestalde, plazatik pasatzen den errekatxoa ibai nagusira besbideratzeko lanak abuztuan bukatu ziren. Lan horiez gain, Antiguako ermita berritzen ere ibili dira aurten. Kanpoaldeko harria garbitu, eta, elizpeko eserlekua eta ate nagusia ere berriztu dituzte. Bestalde, barrualdean ere antzeman daitezke aldaketak: hormak eta eserlekuak itsusituta daude eta horma horiek margotu eta lehendik sitsak jandako hainbat eserleku egokitu dituzte.

UR kristaldegia
Kristalak oro har
Ispiluak, beirateak, biselatuak
Isolatzaileak, plastikoak, etab.
Martokua, 1-3 behea - BERGARA - 943 76 54 68 tel.

GATINEAU
Igaro Usaindegia
JUVENA
YVES SAINT LAURENT
943 76 17 27
CLARINS PARIS

Erlojutegi
iRUDi
Bitxitegi
Tel.: 943 76 51 65 - Ibargarai,2 BERGARA

Zorionak Egunkaria!!
EA eusko alkartasuna
Barrenkale, 18-1. - ✆ 943 76 26 81
20570 BERGARA

BOLINTXO
OKINDEGIA
San Juan auzoa, z/g ✆ 943 76 16 93 BERGARA

Berango
LOGOS banatzaile ofiziala
Erakusketa:
Legarre Pab., z/g
Gipuzkoa etorb., 6
Tel.: 943 79 01 92
Faxa: 943 79 01 11
ARRASATE • 174 P.K

BOLIÑETE
Oilasko erreak bertan jatekoedo eramateko
Beste berezitasunak: buzkantzak, odolosteak, urdaiazpikoa, gazta.
Zarugalde, 24 behea - ✆ 943 79 39 91 - ARRASATE

Txuringo
Tel.: 943 76 48 63 Osintxu
Jatetxea

PB
PINTURAS BERGARA, S.L.
PINTURA INDUSTRIALA ETA DEKORATIBOA
GARBIKETA, RESTAURAZIOA, ROTULOAK
Arane - Erreka, 32 behea • 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 10 65 • Faxa: 943 76 11 40

MENDIOLA
KIA KIA MOTORS
Araba Etorbidea, Z/g
ARRASATE
Tfnoa:943790011
Faxa: 943771625
HONDA
TOYOTA

AUTOLEYMA
Ibilgailu ia berriak eta aukerakoak
Haitz iturri, 5 - S. Lorenzo auzoa
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Tel./ Faxa: 943 76 09 30
Mug.: 607 40 31 56